

KANDADU INTELIGENTEA

Nortzuk gara?

16 urteko ikasle talde bat gara. Ikasketa bidaiari geundela, Kanariar irletara joan ginen hegazkinez eta gutako biri maleta ireki eta barruko gauzak lapurtu zizkieten. Ezin izan zuten demostratu lapurreta izan zela eta ez zituzten beraien gauzak berreskuratu. Horren ondorioz, kandadu berezi bat sortzea bururatu zitzaigun bidaiarien segurtasuna bermatzeko.



Zein da gure helburua?

Gure helburua horrelako lapurretak salatu ahal izatea da, eta bide batez, lapurtutako gauzak berreskuratu edo dirua eskuratu .

Gure kandaduak mezu bat bidaliko luke mugikorreko aplikazio batera norbait hura irekitzen sahiatuko balitz.

Adibidez, kandadu bat maleta batean jartzen baduzu, norbaitek ireki nahiko balu zure mugikorrera mezu bat ailegatuko litzateke eta aireportuari dirua erreklamatu zeniezaioke.

